



PLAN ESTRATEGIKOA
2016 – 2020



Donostia-San Sebastián, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 75 00
Fax.: 945 01 75 01
E-mail: eustat@eustat.eus
www.eustat.eus

Aurkibidea

I-Interes-taldeen azterketa	3
II- Barne-azterketa	5
III-Egoeraren diagnostikoa.....	6
IV-Misioa, Ikuspena eta Balioak	7
V-Mapa estrategikoa	9


I- Interes-taldeen azterketa

Erakundeen *Misioaren eta Ikuspenaren* garapenaren oinarria da interes-taldeak ardatz hartu, eta haien premiei lehentasunez eta modu orekatuan erantzuteko gaitasuna.

Beraz, Eustaten interes-taldeen azterketari ekin zaio, lehenik eta behin, Plan Estrategikoa egiteko. Azterketan, 34 interes-talde definitu dira, parte-hartzaileei egindako galdetegiaren bidez; talde horiek, bestalde, matrize-mota hauen bidez sailkatu dira: *botere-interes matrizea*; *botere-eragin matrizea*; *inpaktu-eragin matrizea* eta *prominentzia-matrizea*. Azken matrize hori hiru faktoreren arabera ezartzen da: boterea, legitimitatea eta urgentzia. Proposatutako lau aukeren artean, *botere-interes matrizea* eta *prominentzia-matrizea* hautatu dira, horiek islatzen baitute ondoen zein diren Eustaten estrategiak planifikatzeko eta aplikatzeko lehentasunak.

Talde horien premia eta igurikimenak Euskal Estatistika Planean daude jasota, eta hemen igurikimen horiek Eustaten jardueraren bidez nola asebate daitezkeen zehazten da.

Botere-interes matrizeak interes-taldeak sailkatzen ditu, talde horiek daukaten boterearen eta erakundearen estrategiei buruz erakusten duten interesaren arabera. Grafiko honetan agertzen dira matrize horretan lorturiko emaitzak:




Boterea honela definitzen da: interes-taldeen erakundeari ekintza jakin batzuk eginarazteko duten gaitasuna.

Matrizeari esker ezar daiteke zer harreman eduki behar den kolektibo-mota bakoitzarekin, eta zer erraztasun edo zailtasun dauden politika batzuk garatzeko.

Ondorioek erakusten duten eskenatokiaren arabera, kudeatu behar dira, batetik, botere handiko baina interes txikiko 4 interes-talderen asebetetzea, eta, bestetik, lehentasunezko 18 interes-talde, lana oso gertutik egitea eskatzen dutenak. Gainerakoak, interes handikoak baina botere txikikoak, informazio-politiken bitartez kudea daitezke, edo erakundeari ahalegin handirik eskatzen ez dioten ekintzen bitartez.

Interes-taldeak aztertzeko beste ereduak –*Boterea, legitimitatea eta urgentzia* (Mitchell, Agle eta Wood, 1997, 1999)– aukera ematen du interesdunen artean sei portaera-mota identifikatzeko, hiru ezaugarri horien konbinazioan oinarrituz.

Erantsitako grafikoan ikus daitezke *prominentzia-matrize* horren emaitzak:



13 talde definitu dira, Institutuaren estrategia definitzen dutenak, hau da, matrizearen hiru ezaugarriak erakusten dituztenak, eta azpimarratu behar da ez dela antzeman *interes-talde ez-aktiborik*.

Interes-taldeen sailkapen horri esker, lor daiteke: estrategiak lehenestea, talde horiek erakundean eragiteko duten ahalmena ulertzea eta egin beharreko ekintzak kronologikoki antolatzea.

II- Barne-azterketa

Barne-azterketaren helburua da jakitea ea nola garatzen duen erakundeak bere jarduna, lagungarri baita jakiteko zein diren erakundearen egungo gaitasunak, gaitasun potentzialak eta etorkizuneko garapen-eremuak.

Barne-azterketarako, *informazio-bilketa matrizea* erabili da; matrize horren bidez, erakundearen dauden eta errepikatzen diren kudeaketa-arazoak aztertzen dira, gero indarguneeekin kontrastatzen direnak.

Prozesu horretan, 60 arazo errepikatu antzeman dira, zeinetatik 18 lehenetsi diren, agerpen-maiztasunaren arabera. Gero, arazo horiek aztertu dira, honetarako:

1. Arazo horien gaineko adostasuna lortzeko
2. Identifikatzeko zein izan daitekeen arazo errepikatu horren jatorria
3. Identifikatzeko zein den arazo horren jatorria eta nolako ondorioa izan dezakeen.

Aztertu ondoren, beren jatorri eta ondorioen arabera kuantifikatu dira:


	Ondorio Estrategikoa dutenak	Ondorio Operatiboa dutenak
Jatorri Estrategikoa dutenak	11%	5%
Jatorri Operatiboa dutenak	72%	11%

Jatorri-ondorio matrizean, azpimarratu behar da oso altua dela ondorio estrategikoa duten arazo operatiboen portzentajea. Datu horien arabera, hausnartzen da zer barne-errendimendu duen Eustatek eta zer baliabide behar dituen Euskal Estatistika Planean jasotako ekintzak egin ahal izateko.

III- Egoeraren diagnostikoa

M.E. Porterren 5 indarren eredua erabili da elkarren artean Eustaten garapen estrategikoa baldintzatzen duten 4 elementuen inguruko azterketa-tresna gisa (lau elementu horiek dira: lehiakide berrien mehatxua, bezeroen negoziazio-boterea, hornitzaileen negoziazio-boterea eta ordezeko produktuen mehatxua).

Tresna horrekin indarren arteko orekak bilatu dira, eta ikusi da zer alderdik baldintzatzen duten Eustatek gaur egun duen egoeran



Hona hemen Eustati buruzko ondorioen dekalogoak:

1. Marka-identitate bat dauka
2. Lehiakide berrientzako oztopo handia duen jarduera-sektore batean dihardu
3. Hazi egin da informazio estatistikoaren beharra
4. Etengabeko aldaketa teknologikoak, etengabe adi egotea eskatzen dutenak
5. Informatzaile instituzionalen nolabaiteko kontzentrazio bat dago
6. Oso eskari zehatzak dituzten erabiltzaileak ditu, kategorizazio konplexukoak.
7. Iragarri ezin daitezkeen informazio-eskaria
8. Erakundeen arteko aliantzak lehenesteko beharra
9. "Big data"ren aukerak, informazio estatistikaren iturri gisa
10. Zabalkunde-formatu berrietara egokitzeko beharra.

IV- Misioa, Ikuspenna eta Balioak

Informazioa aztertzeko prozedura bukatuta, estrategia garatzeari ekiten zaio, hartarako laguntza-politikekin batera; horretarako, Misio-, Ikuspen- eta Balio-deklarazioak eguneratzen dira, bat eginez egindako hausnarketekin.

Lortu beharreko emaitza eta konpetentzia giltzarriak identifikatu eta integratzen ditu Misioak, interesdun ezberdinei zuzenduriko baliozko zerbitzuak sortzeko oinarri baitira.

MISIOA

Eustat, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-erakunde autonomoa da eta euskal administrazio publikoei, gizarte eragileei eta gizarteari zuzendutako informazio estatistiko ofiziala garatu, ekoiztu eta zabaltzen du; informazio hori, kalitatezkoa eta objektiboa izateaz gainera zientifikoki egiaztatzen da. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera zuzendu eta koordinatzen du, eta Espainiako eta nazioarteko estatistika-esparruan laguntzen.

Ikuspenak ezartzen du zein den, epe luzera, Eustaten helmuga, kontuan hartuta haren estrategiak, politikak eta emaitza giltzarriak. Gida bat da, egungo norabidea eta etorkizuneko doikuntzak aukeratzen laguntzen duena. Horretaz aparte, etengabeko ebaluaziorako oinarrizko irizpide bat da, ziklo estrategikoaren progresioa neurtzeko balio duena.

IKUSPENEA

Hau nahi du Eustatek:

- ***Aitzindaritza indartzea erabiltzaileen behar estatistikoetara bideratutako informazio estatistikoa ematean, eta gogobetetasun-maila handia lortzea.***
- ***Erakunde bikaina eta berritzailea izatea, estatistikak ekoiztu eta zabaltzean eta metodologia zabaltzean.***
- ***Erakunde hurbil, fidagarri, profesional eta sozialki arduratsu izatea.***
- ***Erakundeko profesionalak haren parte sentitzea, eta beren asebetetze-maila hobetzea.***

- ***Informatzaileekiko lankidetza hobetzea, batez ere erakundeekikoekin, eragiketa estatistikoaren kalitatea bermatzeko.***

Balioak dira: erakundearen barne-jokabidea eta kanpo-harremanak gidatzen dituzten printzipio edo filosofiak. Aukeren aurrean egon litezkeen igurikimenak finkatzen dituzte, eta zer den desiragarri eta zer ez zehazten. Balioek zuzenean eragin behar dute erakundearen kideen portaeretan.

BALIOAK

- ***Independentzia profesionala***
- ***Zehaztasun teknikoa***
- ***Isilpekotasuna***
- ***Etika eta integritatea***
- ***Kalitatearekiko konpromisoa***
- ***Bezeroarenganako orientazioa***
- ***Talde-lana***
- ***Etengabeko hobekuntza***
- ***Pertsonen garapena***
- ***Emaitzen gardentasuna***
- ***Gizarte-erantzukizuna***

V- Mapa estrategikoa

Mapa estrategikoa goi-mailako tresna bat da, Misioa eta Ikuspena lortzeko taktika ezberdinak jaso, eta horiek Eustaten ekintza ezberdinak islatzen dituzten mugarri edo helburu estrategiko ezberdinetara eramaten dituena.

Diagnostikoaren azterketatik abiatuta, erabaki estrategikoak mapa estrategiko batean biltzen dira, lau perspektiba klasikoetatik. Gai estrategiko bakoitza aginte-taula osatzen duten adierazleekin kudeatzen da, Zuzendaritzatik; adierazle horiek, bestalde, beren ekintza-planak dituzte, arduraduna ezberdinek kudeatzen dituztenak.

AGINTE TAULA INTEGRALA

